

EAEko EUSKARAREN LEGEAREN 25. URTEURRENA

Azaroaren 24an izan dugu EAEko Euskararen 25. urteurrena. Hori dela bide zenbait elkarrizketa, jardunaldi eta gogoeta egin izan dira bazterretan. *Berriak*, *Gara*, *Deia* egunkariak honelako hainbat plazaratu dituzte beren orrietan data horren inguruko egunetan.

Egia esan, honelako datak, besterik ezean ere, gogoetarako deigarriak izan beharko genituzke, euskararen iraupenaz kezaturik gabiltzanok. Egin-eginean ere, egunak, asteak eta urteak abiadura handiz doazkigu gizarte moderno aldakor honetan, hainbat gazteago ginela, orain dela 25 urte, amets izan genituen zenbait gogo eder hutsal edota erdi hutsal gertatzen ari zaizkigula ikusten ari gara maizegi.

Hori horrela, nire ustetan, gogoeta-gune zabal bat ireki beharko genuke euskararen egungo egoera aztertzeko; hau da, urte luze hauetan zer egin dugun, zer utzi dugun egin gabe edo erdizka eginda edota zer egiteko prest gauden adosteko. Urtemuga hori dela eta, omenaldiak ere eskaini dizkiete, garai hartan legea prestatzen aritu zirenei. Kritika zorrotzak ere plazaratu izan dira bereziki lege hura Espainiako Konstituzioaren muga estuei hertsiki loturik egin zelako. Hain zuzen ere, eus-kara gaztelaniaren menpe egotetik askatu ez zuelako.

Edonola ere, euskararen legearen eremu mugatu eta mugatzaitetik haratago joateko, nire ustez euskaldunon eskubide

pertsonalak eta gure herriak iraupenerako dituen eskubide kolektiboak aitortu eta hartu behar ditugu abiaburutzat, gure etxeari oinarri sendoak ezarri nahi badizkiogu.

Legeak, gehienez ere, Euskal Herrian bizi garenon arteko harremanak bideratzeko aukera eskaini behar digu; inoiz ere ez, gure eskubide indibidualak eta kolektiboak mugatzera edota, are gutxiago, murriztera eraman. Legeak, beste ezeren gainetik euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidearen bermea eskaini behar digu, gainerakoak bide faltsuak izango direlarik. Ezer gutxitarako balioko du legeak, edozein euskaldunek euskaraz bizitzeko duen eskubidea praktikan aitortua ikusten ez duen bitartean.

Beraz, gertakari honek beste behin abiaburura begiratzera eraman behar gaitu. Ezin gara egindakoa txalotzen geratu. Hausnarketa egin eta konponbideak bilatu behar ditugu. Honetaz neure egiten ditut Eulate Zilonizaurrekoetxea eta Unai Larreategi jaunek egindako gogoetako hurrengo hitzok (GARA, 2007-11-24):

Euskararen egoera aztertzeke garaian, irakurketak eta mezuak datozen lekutik datozela, oso ezberdinak Izan obi dira. Batzuek botila erdi butsik ikusten dugu, beste batzuek aldiz, erdi beterik. Uka ezina da azken urte luzeetan euskararen normalizazioaren bidean urrak eman ditugula. Zalantzarik gabe, eman diren urrats horiek eta euskararen alde Euskal Herrian egin den eta egiten den lan izugarria azpimarratu gabe ezin da utzi.

Horien artean, ikastolen sorrera, borien garapen garrantzitsua eta haurren euskalduntzean bete duten funtsezko eginkizuna; bezkuntza sare publikoetan euskarari sarbidea emateko euskaltzale askoren ahalegina eta emandako pausoak; euskarazko hedabideen sorrera eta hedapena; euskararen erabilera bedatzeko hamaika egitasmoren sustapena; helduak euskaldun eta alfabetatzeko ahalegin handia; bizkuntza eskubideen eta ofizialtasunaren aldarriarekiko babesa; normalizazio egitasmok herrika; udalerri euskaldunetan euskaraz

bizitzeko politikak; euskararen kontrako erasoen aurreko protestak eta mobilizazioak... Horiek guztiak, eta zerrenda ditzakegun beste asko gehiago, Euskal Herrian euskararen aldeko kontzientzia sozial zabala eta garrantzitsua dagoenaren adierazle argiak dira. Euskararekiko atxikimendu horrek, Euskal Herrian euskaraz bizitzeko herriak duen gogoia eta nahia erakusten ditu.

Edonola ere, urrats horiek guztiak zer nolako testuingurutan ari garen ematen aztertzea ezinbestekoa da. Izan ere, aipatutakoarekiko kontraesana dirudien arren, euskararen egiturazko egoera larria baita. Herri honek bere bizkuntza nazionalarekiko atxikimendua eta konpromisoa etengabe azaltzen duen arren, euskara itolarrian dago, euskaldunok bezalaxe, Euskal Herria bezalaxe.

Gaurko eguna arte, mendeetan zehar Euskal Herria jasaten ari den zapalkuntzaren baitan, euskarak eta euskaldunok jasan beharreko menpeko egoera lasgarria da. Historian zehar eta egun ere, euskara izan da espainiar eta frantses estatuen eraso-en jomuga nagusietako bat, aski ongi baitakite bizkuntza dela herri identitatearen adierazle, lurraldetasunaren funtsezko zutim, nazio baten biziraupenaren eta garapenaren enbor.

Egun euskarak duen estatua, Euskal Herrian indarrean den esparru juridiko-politikoaren baitakoa da, ordezkapen prozesuaren katearen beste kate-begia. Herria eta bizkuntza euskaldunontzat banaezinak diren bezalaxe, estatuentzat ere ezin zuen bestela izan. Madrilek eta Parisek erabaki zuten euskaldunon bizkuntza eskubideak non aitortu behar ziren eta non ez; euskara non den ofizial eta non ez; euskara legez babestu edo ez... eta noski, hori guztia euren legedi amaraunetik. Hots, gaztelania eta frantsesaren nagusigoa zаланtzan jarriko ez duen arauen barruan eta, noizbait, zаланtzan jarlezakeen neurririk hartuz gero –udalerrri euskaldunen mankomunitatea, adibidez-, halakoak indargabetzeko mekanismoak indarrean jarri.

Azken batean gure herriarekiko eta bizkuntzarekiko erabaki abalmena estatuen esku dago eta ezaugarri nagusi horren baitan euskararen alde aipaturiko urratsak garrantzi handi-

koak izanik ere, ez dira sabaia gainditzeko aski. Hau da, euskararen normalizazioa lortzeko sabai garaiezina dagoela egun eta hori gainditzeko indarra egin ezik, urratsak eman ditzakegula, baina denborak frogatu duen moduan, indargabetuak izan daitezkeen bezala, ez direla aski izanen euskaraz bizitzeko eskubidea guza dadin, herri hau euskalduna izan dadin”.

Orokorrean, legea egiten esku hartu zuten politikoek lege horren bidez lortu diren emaitzak goraipatu dituzte, tartean oraindik ezer gutxi jorratutako alor batzuk, hala nola Osakidetza eta Ertzaintza, egoera lotsagarrian ditugun arren. Aipatutako horietan, garrantzi oso handikoak baldin badira ere, ez da orain arte egiazko plangintzarik egin. Nork jarriko, baina, txin-txarria katuari?

Beste alor batzuetan, esaterako, irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan, urrats sendoagoak eman dira, eta oinarri finkoagoak jarri. Hori ez dago ukatzerik. Hala ere, sarritan ahaztu egiten da horrelako zenbait urrats agintarien gogoen kontra herriaren bizi-nahiak sortutako dinamika indartsuaren ondorioz burutu izan direla; urrats horietan, herritarren presio-ekimen indartsuak eragin zuzena izan du behin baino gehiagotan.

Galdera ugari egin diezazkiekegu geure buruei, hots, zertan den euskara familian, irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan, lan munduan, aisialdian, erlijio-bizitzan edota beste hainbat eta hainbat arlotan itaunduz eta zintzotasunez erantzunak ematen saiatuz.

Egiatan, gogoetarako eta gure etxe barruko argi-ilunei begiratu eta etorkizunera begira ikusten ditugun hutsuneak konponbidean jartzeko abagunea dugu. Eta hori, egin-eginean ere, gure hizkuntza, euskara, ez dugulako inolaz ere une historiko jakin batean aparteko garrantzia har dezakeen gertakari puntual hutsa; hau da, euskararen etorkizunak gure izaera kolektiboaren zein indibidualaren muina bera ukitzen duelako.

Beraz gogora ekartzen dugun data hau etorkizunera begira abian jarri behar dugun hausnarketaren abiaburutzat jo behar dugu, 25 urte luze hauetan euskararen bizi-iraupenerako lortu ez ditugunei eraginkortasunez eta gogo biziz aurre egin ahal izateko.

Beharbada, horretarako bide izan daiteke Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan azaroaren 23an egun osoz burututako jardunaldia. Era berean, erdal munduan ibili ezinik ari garen euskaldunok makulu lagungarria izan dezakegu jardunaldi horretan bertaratuei banatu zitzaigun *HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA- testu-bilduma euskaraz* liburua ere.

Hurrengo lerroetan, Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman eta hainbat euskaltzain osok nahiz urgazlek bideratu zuten jardunaldi horretan entzundakoen laburpena eskaini nahi dizuet, hiru arlo nagusiren inguruan bilduta.

1.- Euskararen ofizialtasunaren ikuspegi historikoa

Beti egin ohi duen bezala, Joseba Intxaustik euskaldun gehienontzat oso ezezagunak, baina, era berean, oso interesgarriak diren zenbait gertakari historiko ekarri zizkigun gogorra. Bere hitzaldian euskarak mendez mende izan duen estatuz juridikoa aztertu zuen argi-ilunen zergatiak edo iturburuak argitzen saiatuz. Jardunari gaur egun hizkuntzen ofizialtasunak duen interesa aipatuz ireki zizkion atea:

Hizkuntzen ofizialtasunak gaurkotasun handia du munduan, Europan bezala Afrikan, Asian bezala Amerikan, Estatu Batuetan bezalatsu Txinan, frankofonian legez anglofonian. Kasuan kasuko lehenengo ofizialtasunak eta ondoko egokitzaen berriak eten gabe ari dira gertatzen. Inoiz ofizialtasun zurrun batetik basita malgutasun eta eleaniztasun berrietara pasatzen ari dira lege-politika hauek (Brasil-en, adibidez). Eta bada kasurik, garai batean legezko ofizialtasunik ezagutu gabeko herrietan, hain zuzen, oraintxe bertan legez-

ko ofizialtasunaren bandera hartu dutenak edo hartzen ari direnak (Frantzia, AEB).

Jarraian euskararen bilakaera historikoko une batzuk jarri zizkigun aurrez aurre, Euskal Herriak jasan izan duen zatiketa-egoera aipatuz:

Bere iragan ofizialean baldintza ezagunak izan ditu euskarak, zinezko ofizialtasun posiblea edo erreala oso baldintzatu dutenak. Mota ezberdinetako baldintza sozio-historikoak eza-gutu ditugu gurean. Izan ere, euskararen lurraldea,

- *Botere bateratzaile jakin baten faltan, Administrazio ezberdinek gobernatu dute euskal lurraldea: horretan, ez du-gu batasunik izan, agintari zibilak bezala eliztarrak, ba-koitza bere gisara ibili dira hizkuntzarekiko bonetan.*
- *Batetik, Nafarroa, Hiru Probintziak eta Iparraldea beren Herri-Erakundeekin; bestetik, Eliza, gutxienez 10 Diozesitan banatuta, bere Ordena eta Artzapezpikutegi ezberdinekin; eta ezin da abaztu Eliza Erreformatua (XVI-XVII. mendeak).*
- *Euskara beste hainbat hizkuntzaren artean aurkitu da, eta lehia zailean: latina eta erromantzeak batez ere, bertakoak eta ingurukoak, bakoitzak bere botere-antolamendua due-la, biztun-indar eta kultur baliabide ezberdinekin.*

Aurkezpen labur eta zehatz hori egin ondoren, euskarak ofizial bilakatzeko mendez mende izan dituen abaguneak az-tertzeari ekin zion, zenbait une garrantzitsu gogora ekarriz:

1. XIII. mendea: administrazioek erromantzeak hobetsi zi-tuzten garaia. Euskara baztertu izan zen erabilpen idatzian, behinik behin, horrek gerora ondorio larriak ekarri zituelarik.

2. XVII. mendean, Etxepareren garaian Joana Albretekoaren hizkuntza-politika eta Eliza Erreformatu kalbindarrena abian ja-rri zenean ere (1560-1572) aukera ederra izan zen. Eten egin zenez ez zuen jarraipenik izan.

3. XVII. mendean, Trento ondoko Erreforma abian jartzean, Iparraldean Axular eta beste batzuen inguruan sortutako mugi-menduak eta hegoaldean Eliza katolikoko Sinodoek, Kalaho-

rrako apezpikua J.B. Luku zela (San Ignaziori apaiz euskaldunak eskatu zizkion) bultzada handia eman zioten euskarari. Epe laburreko kontua izan zen, laster hil baitzen.

4. XVIII.ean, bi gertakariren ondorioz: a) larramenditarrek corpus-aren gain egindako lana zela bide (1728...), eta b) *Euskal Herriaren Adiskideak* (1765...) taldeak bultzaturik ofizialtasuna lortzeko abagune ona egin zen, gauzatu ez bazen ere.

5. Frantziako Iraultzaren ondoko krisiaren barruan euskararen aldeko ardurak eske berriak ekarri zituen, Bizkaiko Herri-Erakundeetan batez ere (gogora Uribarri), eta lehen euskal liberalek ere euskal Eskola eskatzean (Astigarraga, Iturriaga) eta geroago karlismoaren barruan. Frantzian hasieran onartutako herri-hizkuntzak baztertuak eta mespretxatuak izan ziren batasunaren izenean

6. Geroago Hizkuntzaren kontzientzia sozialak gora egin zuen, abertzaletasunarekin bat eginda, euskara balio nazional bezala hartua izatean (Arana-Goiri). “*Eusko Pizkundea*” gertatzean egitarau politiko ezberdinetakoek lagundu nahi izan zuten euskararen etorkizun ofizial posiblea (1876-1936) gauzatzeko, nahiz eta aurkakorik asko egon. Horrela, II. Errepublikako Konstituzioan aurkitu zuen euskarak bere babes juridikoa Estatutuaren bidez, nahiz eta ofizialtasuna hiru probintziatara mugatua izan (1936).

7. Gerra ostean, lehen hamarkadan zeharo baztertuta egon ostean, gizarteak burua jaso ahala (1950-1970), zirrikitu praktikoak ireki ziren zenbait arlotan eta horrela, 1970ko irakaskuntzako legeak ateak ireki zizkion (...y el cultivo, en su caso, de la lengua nativa”). Horren ondoko urratsak izan ziren estatutua eta euskararen 1982ko legea.

Ibilbide historikoa gogora ekarri eta abagunetzat jotako garai horiek maisuki jorratu ondoren Joseba Intxaustik gogoetarako hainbat puntu, zein baino zein interesgarriagoak eskaini zituen. Gure artean une honetan ikusten diren zenbaiten jarre-

rak nahiz portaerak ulertzeko argigarri gertatuko zaizkigula us-
te dut:

BEHIN-BEHINEKO HIPOTESI gisara zilegi bekit oharpenen bat edo beste egitea, zortzi mende horietako ibilera honen ondoren: Zer eskaintzen digu ofizialtasun/ez-ofizialtasun horretako iraganak? Har bitez oharrok gogoeta baterako iradokizun bezala, gehiago gabe.

4.1. Boterearen eta hizkuntza-gizartearen arteko harremanak definitu izan ditu ofizialtasunak. Euskal Herrian botere hori sakabanatua izan da, eta Administrazio batean edo bestean suertatu, ofizialtasunak aurpegi ezberdinak izan ditu.

4.2. Euskararen ofizialtasuna inguruko hizkuntzen arazo berarekin batera ikusi izan da beti gurean, eta batez ere erromantzeen historiarekin lotuta ageri zaigu (latina, arabiera edo hebraiera abaztu gabe): bertako erromantzeak (nafarrera, biarnesa edo gaskoia, gaztelania, frantsesa) edo urrunagoekin (garai bateko frantses urruna).

4.3. Hizkuntza idatzian latinetik erromantzeetarako jauzia samurra edo errazagoa gertatu zen bezala, askoz aldapa gorago egokitu zen erabilpen ofizialetarako euskara idatzia “egin” eta beraietan ezartzea, latin idatzitik euskara idatzirako aldea hizkuntzaz eta sozialki handiegia gertatu zelako (latinez ari zen idazkari funtzionarioak errazagoa izan zuen erromantzean idaztea, euskaraz egitea baino).

4.4. Euskal handikiek eta eskribauek Errege Gantzelariarekin ere barremanak behar zituztenez samurragoa izan zuten erromantzean idaztea, eta ez lan bikoitza egitea: Gantzileriarako kasuan kasuan erromantzez, eta horrekin batera herritarrentzat euskaraz.

4.5. Tokian tokiko klase gidariek eta luma-gizonek (denak ere, alfabetatuak) elebitasun asimetrico horretan (herriak mintzatu, funtzionarioek idatzi) botere-bitartekaritza betekizuna hartu zuten, berriz ere (lehenago latinarekin, orain XIII.ean erromantzeak erabiliz).

4.6. Eskribauek eta berauen laguntzaileek interpretari-zeregin hartu: herritar euskaldun elebakarren eta agintari erdal-

dun elebakarren arteko bitartekaritza-egitekoa, alegia. Beteki-zun sozial pribilegiatua, beraz.

4.7. Bitartekaritza hori tarteko zelarik, euskara desagertu egi-ten zen: herritarren eta Administrazioaren tartean zebilen euskara mintzatua eta hainbat zeregin zebatzetan euskaraz esandakoak ez ziren jaso paper idatzietan. Euskarazko elka-rrizketa sozial eta ofizial bari ez zitzaion eman apenas leku-rik Artxiboetako idazkietan, historia guztiak bestelakorik fro- gatzen duen hainbat eskualdetan (toponimiak, adibidez) eus- kararik izan ote zen historialari batek baino gehiagok galdetzeraino.

4.8. Galdetzekoa da, bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan ager- tzen zaigun euskararen Batzarretako debekua zenbateraino errespetatu izan zen ahozko hizkuntza mintzatuan.

4.9. Administrazioaren usadio idatziak gorabehera, batez ere tokian tokiko Herri-Erakundeetan euskara izan zen hizkuntza arrunta, gero, behar zenetan, agiri ofizialetan idatzi obi zena.

4.10. Ezaguna da herrietako Ordenantza eta munta handiko Ebazpenak euskaraz aldarrikatu obi zirela, Elizan eta herriko kaleetan; zoritxarrez, holakoetan sortu eta erabil zitekeen eus- karazko testurik oso gutxitan beldu da guganaino.

4.11. Azpimarratzekoa da, mende luzez euskarazko Adminis- trazio idatzirako euskal Herri-Erakundeek erakutsi duten ezi- na eta/edo zabarkeria, uste daiteke hori arduradun asko tes- tuinguru hartan eroso zebilelako gertatu zela. Mundu ida- tziaren jabe izatea aparteko indarra zen gizarte alfabetatu gabe hartan. Interes pertsonal eta taldekoei beren eragina ai- tortu behar zaie, uste dut.

4.12. Horren ondoan, Elizaren hizkuntza-politika dago, Erdi Arokoa lehenengo eta Aro Modernokoa gero. Euskal Herria kristaututa gero, gutxienez 500en bat urtean, ez dugu ezagu- tzen euskarazko eliz testu idatzirik (katiximak, sermoiak, kantak, debozio- eta beziketa-libururik)..

4.13. Aro Modernoan besterik izan da. Eliza katolikoak, par- tez bederen, ofizialtasuna eman zion euskarari dotrina eta predikurako (Sinodoak) eta erlijio-literatura estimagarria sor- tu zuen: bata nahiz bestea, idatzi ez eze inprimatzeko ere

bai. Horren emaitza da eliztarrek euskara idatziaren historian izan duten tokia.

4.14. Hori horrela, Elizak euskaraz egin duen erabilpena mugatuta egon da: alde batetik, eliz latinak mugatua, eta bestetik, jakineko erabilpen-eremuetara mugatua, Elizako bizkuntza batek izan ditzakeen esparru guztietara hedatu gabea (liturgia, administrazioa, teologia, etab.).

4.15. Euskal Protestantismoaren sorrerako ekarpenen artean jarri behar da euskara idatzi ofizialerako sorkuntza- eta itzulpen-lana, Euskal Herriko Erakunde guztientzako gertakari eredugarria, eta garaiko kultur eta erlijio-mugimenduetatik iritsi zitzaiguna.

4.16. Gure Herri-Erakundeak askoz mantsoago abiatu ziren beren baitan euskarari ofizialtasun idatziren bat ematen; ofizialtasun osoa lortzeko abaleginak Aro Garaikidearen aurretik ez ditugu ezagutuko apenas (Bizkaiko Batzarrena; Alderdi politikoen programak, etab.).

4.17. Euskal Lurraldetik kanpoko botereek eragin erabakigarria izan dute euskarari Administrazioan lekurik egin edo ukatzean, hau da, ofizialtasunaren aitopenerako jarrera eta erabakietan (XIII. mendea, Iraultza Frantsesa, Liberalismoa; II. Errepublikak, frankismo ondokoa).

4.18. Era bertsuan, euskal Herrialde, Hiri eta Herrietako agintarien erantzukizuna handia izan da euskararen ez-ezagutza egoeran eta etorri diren legezko aitopenetan: utzikeria, erosotasuna, ezjakintasuna edo interesak batetik, kontzientzia kultural-politikoa eta interesak, bestetik. Une eta testu-guru bakoitzeko historia aztertu behar da

4.19. Ofizialtasunerako ibileran, euskal herritarren bizkuntza-kontzientzia eta borondate pertsonal eta sozialen argitze-indartzeek eragin zuzena izan dute euskararen kasuan ere, bonelako beste kasuetan obi denaren antzera. Hizkuntzaren alde sozial, kultural eta/edo nazionalen balioespenak zuzenki baldintzatu du, Aro Garaikidean batik bat, ofizialtasunerako bidea.

4.20. Galde daiteke, batez ere bizkuntzaz kanpoko interesetarako landutako ideologiek zertan lagundu edo behaztopatu

duten ofizialtasunerako abalegina. Aurreko mendeetako apologistika zabarrari buruz egin daiteke galdera hau, adibidez.

4.21. *Beti gertatuko da argigarri jakitea ofizialtasuna lagundu zuten Erakundeen argudio eta interesak aztertzea, erakutsitako leialtasunaren esanahia ulertzeko (erreforma erlijiosoetan, Iraultzakoan, etab.)*

2.- Legearen sorrera, garapena eta ondorio batzuk

a) Sorrera: jardunaldi horretan, nola ez, euskararen legearen sorrerari buruzko zenbait datu, hala nola, tramitazioa, alderdien jarrera, protagonistak eta abar gogora ekarri zizkigun beraren sorreran zuzeneko esku-hartzea izan zuen Jose Luis Lizundia jaunak, legeak akordio zabala lortu zuela nabarmenduz, eta prozesu hura bere testuinguru politikoa kokatzen saiatuz. Lizundia jaunaren ustez honako hauek ziren legearen baitan aipatzekoak: *“euskararen normalizazioa alorrez alor garatzeko irizpideak, Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin bizkuntzarekiko hitzarmenak egiteko adostasuna, Euskara Abolku Batzordearen oinarria, edota justizia arloaren ahulezia”*. Bertan izan zen Labaien jaunaren iritziz zeharo labur geratu zen “akordio zabala” izan zuen lege hori, euskarak gaztelaniari zion morrontzari aurre egiteko bideak jarri ez zirelako.

b) garapena eta ondorioak arloka

-Administrazioan: Gotzon Egia jaunak, administrazioak duen garrantzia datu bidez (90.000 langile inguru barru hartzen ditu) azaldu ondoren, euskara-alorrean administrazioaren eremuan eman diren urratsak aipatu zituen, argi utziz euskalduntze-prozesua ez dela 25 urteko legean oinarritu, 1997ko apirilaren 15eko Dekretuan baizik, dekretu horretan jarri baitziren hizkuntza eskakizunak abian. Hala ere, administrazio-eremua hain zabala eta egoerak hain desberdinak (Aldundiak, Herri Erakunde Autonomoak, udal handiak, udal txikiak,...) izanik, nahiko kaotikoa izan omen da burutu izan den ibilbidea. Euskal udal askotan, agintari politikoei euskarari dago-

kionez analfabetoak izateak ere oztopo larriak ekarri dituzte euskarari estatus egokia emateko orduan. Langileen adinaren ondorioz dekretuak ezarritako salbuespenak ere eragozpen handi gertatzen ari dira. Bere ustetan, une honetan administrazioak duen erronkarik handiena, euskararen erabilera omen da. Aitortu zuen, baita ere, izugarrizko laguntza eman diotela euskararen normalizazioari administrazio handietako itzultzaileen taldeek, berauek izan baitira euskara eremu denetara ego-kitzea lortu dutenak.

–Arlo sozio-ekonomikoan: Anaje Narbaiza andereak euskarak lan munduan izan duen bilakaera azaltzen jardun zuen. Euskarak lan-munduarekin harremanetan izandako historiaren laburpena egin ondoren, gaur egungo egoerari buruzko gogo-etak eskaini zizkigun, euskararen legearen aurrean nahiko ja-rreka kritikoa azalduz:

“Egoera sozial bonetan, Euskararen legeak Erkidegoan erabil-tzen ziren hizkuntzak definitzen ditu: Euskara, bizkuntza propioa eta Gaztelera bizkuntza ofiziala. Definizio honek be-re barnean ezina dakar euskararentzat, izan ere legea aipa-tzen dugunean derrigorrez bete behar den zerbait etortzen zaigu burura, baina kasu bonetan ez dago derrigortasunik euskararentzat, beraz, legea bera baino gehiago da euskaraz bizitzeko borondate kolektiboa eta eskubidea.

Ondoren aditzera eman zuen 1990ean HPINek (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak) eta ELAYko zuzendaritzak (langile batzordearen adostasunarekin) lehen euskara planaren diseinua egin zutela, eta hasieran 165 langile eta 12.000 euroko laguntza barru hartzen zuen plana, 2007an, 150 enpresa (48.500 langile) eta 2.300.000 euroko diru-laguntza izatera iga-ro dela nabarmenduz eta honako gogoeta hau aurkeztuz:

Baina euskaraz bizi izateko borondate kolektibo horretan al-daketa asko eman dira azken 25 urte hauetan; gizarteko bainbat eragilek legea edukiz osatu dute; batetik, euskara pla-nak enpresetan gauzatzeko enpresak sortu dira Elbuyar, Ar-tez, Emun, Abize... euskara planen berri eman eta martxan

*jarri dituztenek. HPStik 1800 enpresengana hurbiltzea euskara planen berri emateko eta zenbait kasuetan lehen diagnostia egiteko. “Euskararen Kontseilutik” urtean behin hainbat erakunde komertzio eta enpresekin duten barremana euskararen ziurtagiriaren inguruan. Herrietan burutzen ari diren ekimenak lan-munduari zuzenduta, Euskara Elkarteek egiten dituzten erabilera areagotzeko ekimenak eta beste hainbat sustapen lanei esker esan dezakegu, **Lana euskaraz egitea geroz eta ezagunagoa dela gure gizartean** beraz gizarteak hurrengo urratsa ulertuko du: “Euskara eskolako bizkuntza izatetik laneko bizkuntza izatera pasatzea”.*

Dena den enpresa batek, barnera begira euskararen plana gauza dezake borondatean oinarrituta, ez da ezinbestekoa derrigortasuna, baina lagungarriak dira inguruan dituen erakundeen babesa eta bultzada, batez ere Administrazioetik, Sindikatuetatik eta Enpresa Elkargoetatik. Izan ere, bultzada handia hartuko luke Sindikatu eta Enpresa Elkargoetatik euren sustapen planak bideratuko balituzkete euren partaideen artean eta nola ez, Lan eta Industria sailek euskararen planak inbertsio modura aurreikusi eta babestuko balute.

Gaur egun gauden egoera soziolinguistikoa, gaztelera, bizkuntza boteretsuena, legez ofiziala izateak, euskararen garapena moteltzen du. Baina gaia sakon alda zitekeen Sindikatuok eta Politikook gutxiago begiratuko bagenio botoari. Euskara dela eta, botoen batuketak eta kenketak egiten ditugun bitartean ez dugu urrats handirik egingo. Euskararen inguruan apustu eta helburu garbiek sinestearaziko digute euskara gure bizkuntza propio dela eta berreskuratzeko premia etikoa dugula. Urrats horiek eman eta urte batzuk pasa ondoren egon gintezke lege aldaketaren atarian, euskara bizkuntza propio eta ofizial bakar bezala aurkezteko Euskal Herrian.

–Irakaskuntzan: Mikel Zalbidek maisutasun handiz azaldu zuen hain ongi ezagutzen duen irakaskuntzaren alorra, bertan ikusi dituen argi-ilunak aurrez aurre jartzen saiatuz. Bestalde, argi utzi zuen legea etorri aurretik ere Euskal Herriak hartua zuela, eragozpenak eragozpen, irakaskuntza euskalduntzeko bidea, eta ikastolek egindako bideak hainbatean erraztu zuela

gainerako zentro publikoak zein pribatuak euskalduntze-bidean jartzeko ahalegina. Hezkuntza alorreko egoera argi azaldu zuen, une honetan oraindik unibertsitate-aurreko irakaskuntzako goi mailetan A ereduak nagusi badira ere, hamar bat urteren buruan zeharo aldatuko direla datuak esanaz, D ereduak gainduko baitira.

Interesgarriena legearen aplikazio operatiboari dagokionez esandakoak, hain zuzen ere, hurrengo hauek izan ziren:

- a) *Ereduen bilakaera: ikasle-kopuruak. A eredia gainbehera etorri da oro bar, batez ere Haur Hezkuntzan eta LMHn. B eta, batez ere, D eredia indartu da mende-laurden honetan. Lehenengoa estabilizaturik-edo dago, eta bigarrenak gora darrai.*
- b) *Irakasle elebidunen hazkundea. Euskaraz zekien irakasle gutxi zegoen EAEko irakas-sisteman. Orain, berriz, gehiengo zabala dira. Aldeak daude lurralde batetik bestera, irakasmaila batetik bestera eta ikastetxe-mota batetik bestera, baina fenomenoa jeneral da eta joera antzekoa.*
- c) *Ikasmaterialen bilakaera. Lan handia egin da irakasle-mintegietan batetik, itzulpen-taldeetan bestetik eta, bereziki, argitaletxeetan EAEko ikasle-irakasleek behar adina ikasmaterial izan dezaten euskaraz. Hizkuntza-kalitatea gero eta sakonago lantzen da, eta curriculumaren euskal dimentsioari ere berriazko atentzioa eskaintzen zaio hainbat lanetan.*
- d) *Hizkuntzazko gaitasun-agiriak. 16.000 hiritar inguru aurkezten dira, urtero, EGA azterketetara, eta beste zenbait mila-ka irakasleen hizkuntza-eskakizunetara. Hizkuntza Eskola ofizialak ere horretan ari dira, aspaldiko urteetan. Euskaraz bitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko trebetasun-maila jakinak neurtzeko gero eta baliabide sendoagoak ezarriak ditu Hezkuntza Administrazioak.*
- e) *Euskararen erabilera indartzeko ekimenak. Atal oso bat eratua dago Sailean, aspalditik, eginbehar horri erantzuteko: NOLEGA. Eskolei begira ULIBARRI programa eratu da, milaka irakasle eta ehunka milaka ikasle biltzen dituen.*
- f) *Zer ez da egin oraindik, aplikazio operatiboari dagokionez? Gauza asko dago, oraindik, egin arin edo gordin: euskarazko*

eskola-jardunguneak eta barreman-sareak gizarte alorreko jardunarekin txertatzen ezer gutxi aurreratu da mende-laurden honetan, eta ondorio argiak ditu horrek egungo egunean.

Hezkuntza alorrean izan diren emaitza linguistikoen balio-espina egiterakoan honelako laburpena eskaini zigun:

Bistan da EAEko ikasle gehienak urruti, askotan oso urruti, daudela elebidun funtzionalaren paradigmatik. Alde horretatik bistan da, EEN legeak dioena partez bakarrik bete dela: aski parte mugatua bete ere, azken ebaluazio-saioen argitan. Trebetasun jasotzaileetan (entzutezko eta irakurritzko gaitasunean) hainbatean moldatzen dira ikasle gehienak, batez ere kopuruz gero eta nagusiago diren B eta D ereduetan. Aldiz trebetasun produktiboetan (hitz egiten, idazten) ikasleen eta eskolatik irtendako gazteen moldatze-maila hori apalagoa da oro har. Apalagoa batzuetan, eta askozaz apalagoa besteetan. Hori guztia dela medio, sarri entzun liteke gure artean, ezker-eskuin, EEN legeak porrot egin duela. Agintzen zuena ez dela urrundik ere betetzen ari.

-Teknologia berrietan: Andoni Sagarna jaunak teknologia berrien mundua aztertu zuen, horrek euskararen etorkizunean izan dezakeen eragina nabarmenduz:

“1982an, hain zuzen, IKTak gure gizartean zabaltzen hasiak ziren, lehenbiziko ordenagailu pertsonalen bitartez. Ordutik hona bazter guztietan sartu dira eta bizitzaren arlo guztietan izan dute eragina. Denbora horretan ehunka produktu sortu dira euskaraz, bereziki irakasmundurako eta gutxiestekoa ez den presentzia hartzen joan da euskara Interneten. Herri Era-kundeek diru-laguntzen bidez bultzatu dute produktuen garapena. EIMAIII programa izan da alderdi horretatik eraginkorrena. Aurrera begira, orde, aztertu beharra dago ereduak. IKTetan euskarak duen lekua ez da Hezkuntza eta Kultura sailtako kontua soilik eta ezta diru-laguntza bidez soilik konpon daitekeena ere. Sail guztiek parte hartu beharreko gaia da, bereziki Industriak. Zenbait arlotan oso erronka gogorrak datoz, esate baterako Osasun arloan, osasun-txartel digitalarekin eta historia kliniko digitalekin”.

–**Hedabideetan:** Julian Belokik euskararen legeak hedabideetan izan duen eragina nabarmendu zuen, daturik ugari pantailan eskainiz. Hala ere, urak etxera eramaten aritu zela iruditzen zait, aipatu zituen zenbait hedabide legearen babesean baino gehiago, legearen kudeatzaileek oztoporik asko ezarrita, herritarren ekimenean oinarrituta burutu izan direlako. Sarritan legeak ezarritako muga estuak hausten jardun behar izan dute. Ongi dago eta aitortzekoa da Euskal Telebistak eta Euskadi Irratiak egindako lana, baina, kontua ez da egin dutena bakarrik gogoratzea; egin ez dutena ere aztertu beharko litzateke, komunikabide ofizial horiek gehiegi kutsatuta egon baitira, askotan alderdikieriaz kudeatu direlako. Akats hori gogoratzen du Txillardegik BERRIA egunkarian (2007-XI-23) iritzi-lan batean:

“Eta ETB1ari dagokionez, alde positiboak ezkutatu gabe, eta goraki aitortzen ditugularik, ezker abertzalearen kontrako tema iraunkorak horretaraturik, euskaldun ikusle askok, nazkaturik, beste katetara jotzen du gure iritziz. Eta hau oso errakuntza larria da. Zeren-eta euskal ikuslerik gehienak ezker abertzale joerakoak baitira”.

3.- Euskara ofizialtasuna Nafarroan eta Iparraldean

Bi lekuko berezi izan ditugu alor honetan. Euskaltzaindiak, Euskal Herri osoko erakundea izanik, Autonomia Erkidegoko eremuetatik kanpoko egoera aurrez aurre jarri nahi izan du gogoeta egiterakoan. Aspalditik euskal munduan ezagunak ditugun bi lekuko entzun ahal izan genituen.

a) Nafarroan izan duen eragina: Sagrario Alemanek Nafarroatik nola ikusi izan duen Euskararen Legea azaldu zigun. Lehen eta behin, Anaje Narbaizarekin batera, Jardunaldian izan zen ahots kritiko bakarra izan zela esan behar dut. Bere jardunean, honako hauek gogora ditzakegu: *legea bera “eredugarri” ikusi izan dut Nafarroakoa egiteko. Zoritzarrez, orde, Nafarroakoan, hobetu ez, baina, txartu egin zuten, eredu izan zitekeen lege honetatik urrundu, eta zonifikazioa ezarriz. Ofi-*

zialtasuna Nafarroan eskualde euskaldunetan bakarrik izatea delarik normalizaziorako zailtasun eta oztoporik handiena. Jarrian Nafarroan euskarak 80 hamarkadan izan zuen ibilbidea gogoratu zigun, Madrilén egindako negoziazioetan, Del Burgo zela tarteko, parlamentuak onartutako ofizialtasuna zonifikazio bidez zapuztu zela nabarmenduz.

Legeak Autonomia Erkidegoan izan duen garapenaz, hauxe azpimarratu du: *Zerbitzu guztiak euskaraz eskaini nahi eta zerbitzu horietako lanpostuak betetzeko euskara ez dela derri-gorrezkoa ikusi dudán bakoitzean amorrazioa sentitu dut.* Legearen eta aplikazioaren artean kontraesan nabarmenak ikusi dituela aitortu zuen, esaterako, Osakidetzako oposaketan euskarari baloraziorik ez ematea edota hutsaren hurrengoa (%23 posturi ezarri diote nahitaezko hizkuntza eskakizuna) ematea. Horrek, bere ustetan, hainbat urtetarako baldintzatuko du egoera edota izugarrizko diru-inbertsioa eskatuko profesional horiek euskalduntzeko.

Era berean gogor kritikatu zuen Autonomia Erkidegoko agintariek, herri ekimenei lagundu beharrean, harakoak ordezkatzeko hartu izan dituzten portaerak ere, gehienetan kontrolpean ez dituzten egintzak itotzera jo izan dutela salatuz. Horrela, legearen garapenak zenbait jenderengan sortu duen ezinegona ikusita, maiz kezkatu izan dela ere aitortu zuen. **Guzti hori horrela izanda ere, onuragarria** iruditzen omen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea Nafarroarentzat ere, *bai hizkuntzaren prestigioa eta balioa handitzean, bai euskarazko komunikabideak ikusi eta entzun ahal izateko aukeran, eta baita ikasketak euskaraz egin ahal izateko erraztasunean ere, lege honek onura ekarri du Nafarroara* esanez.

b) Iparraldean izan duen eragina: Erramon Baso jaunak Iparraldeko edo Euskal Herri kontinentaleko egoera jarri zigun aurrez aurre, besteak beste, honako laburpen hau eskainiz: 1982ko oinarritzko legea Iparralderentzat eredu izan bazen, harez geroztik esparru mugatuagoan garatu dira euskararen aldeko

aginpide publikoak. Autonomia Erkidegoko agintarien eta iparraldekoen arteko harremanen ondorioz, euskararen babeserako bideak egin dira. Dena den Frantzia ez da onartzen hizkuntza alorrean frantsesez kanpoko ofizialtasunik nahiz eta errepublika barruko mintzaira desberdinei “publikotasuna” aitortzen zaien.

Europako legearen eraginez onartu da euskara, irizpide-askatasunaren izenean, Frantziak ez baitu sinatu Hizkuntzen Europako Gutuna. Oinarritzat honako testu hau hartu du: *pentsamenduak eta iritzia askatasunez komunikatzea gizakiak dituen eskubideetatik baliotsuenetako bat da; herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima ditzake* (1789ko Giza-kiaren eta Herritarren eskubideei buruzko adierazpena; 11. kapitulua). Hori eta beste zenbait nabardura aipatu ondoren, leku berezia egin zion bere azalpen-txostenean 2007ko otsailean Eusko Jaurlaritzaren eta Frantziako errepublikako ordezkariaren artean sinatutako Baionako Tratuari, hitzartutakoak aurrera eramateko erakunde bien artean batzorde eragile paritarioa sortu zutela nabarmenduz. Tratu horrek itxaropena sortzen duela esan zuen: badugu erakunde publikoen artean, mugaz gaineko hizkuntza politika bateratua. Xede nagusiak, euskararen transmisioa, erabilera, kalitatea eta euskararen aldeko motibazioa. Etorkizunera begira, uste dut, eta azken inkesta sozio-linguistikoak holako zerbait erakusten omen du, 1982ko legeak bermatzen duen lankidetzari esker, irabazten ari garela Euskal Herri Kontinentalean ere.

Ondorio batzuk:

1. Oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan Jardunaldietan aurkeztu ziren txostenak. Bereziki, hausnarketarako ateak irekitzen dituztelako. Egun bakar bateko lanean gertatuz gero, ezer gutxitarako izango ditugu.
2. Argi dago, legea izateak euskararen onerako diruak jartzea nahiz antolaketa sakonagoak egitea ahalbideratzen duela, baina ez da hori nahikoa, sarritan ikusi izan denez.

3. Ez dakit zer zela eta, baina ez nuen txostengileen artean legearen aurkako salaketak egindako inor ikusi. Beraz, hausnarketa eta eztabaida-bide baino gehiago ospakizuna izan zela esatera ausartuko nintzateke. Eta hori kezagarri gertatzen zait.
4. Txostenak aurkezterakoan legeaz hitz egin zen bakarrik, edozein legeren oinarrian dauden eskubide indibidualak eta kolektiboak, gehienez ere, bidenabar aipatuz. Elkarritzetan Labaien jauna izan zen horri ekin zion bakarra.
5. Ez zuen inork aipatu nahi izan lege horren euskarria Espainiako Konstituzioa eta Autonomia Erkidegoko Estatu-tua direla, eta bi lege nagusi horietan lehentasuna eta derrigortasuna gaztelaniari ematen zaiola. Horietan, jakina, gehienez ere elebitasuna lortzeko bideak onartzen dira. Ezaguna eta onartua da, noski, ez dela munduan elebitasun orekatua duen herririk, ondorioz bide horretatik jardutearen etorkizuna oso iluna dela.
6. Ezinbestekotzat jo zuten batzuk, euskarak aurrera egitea lortu nahi badugu, guztiok (agintari zein herri mugimenduetako kide izan) elkarlanean begirune osoz jardutea, inork inori goitik beherako ezarpenik egin gabe... Ea aurrerantzean hala gertatzen den!
7. Azken 25 urte hauetan lortu izan diren hainbat eta hainbat emaitza eder ez dira legearen eraginez lortuak izan, herritarren ekimenez baino. Honek, hainbatean sendotu egiten du euskaldunok etorkizunera begira dugun itxaropena, gure herriak behin eta berriro erakutsi baitu euskaldun izaten iraun nahi duela.
8. Azkenik, gogora ekarri nahi nuke jardunaldi horretan ez zela bidenabar ere aipatu, une honetan hain larria gertatzen ari zaigun etorkinen arazoa. Zoritxarrez, urtero euskalduntzen direnak baino gehiago dira gure artera etortzen zaizkigun etorkinak, horrek zeharo oztopatzen di-

tuelarik euskararen berreskuratze-plan guztiak. Gehiago, oraindik, euskara hondamendira eramateko bide gertatzen ari dira orain artean euskaldun izan diren zenbait eskualdetan.

Zenbaiten ustetan ez da komeni orain dela 25 urte onartutako legea berriztatzea gure artean adostasun politiko gutxiago dugulako. Beharbada, hala izango da, baina, euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea oso-osoan onartu eta bete ahal izateko alor guztiak euskalduntzeko dekretu edota agindu egokiak ematen ez badira, 25 urte barru askoz ere egoera txarragoan izango gara, eta, beharbada, euskara etorkizunik gabe hiltzorian edo hondamendi bidean.

Patxi Uribarren Leturiaga